

ETB ezkutuan bizi da

ARGIArako idatzi nuen azkenengoa, Zinemaldiaz izanik, erraza izan zen, nahiz eta gure zinemaren independentziaz idatzi. Oraingoan erraza zatekeen ere, DSS2016 hor egonik. Hor dago *Katebegiak* egitasmoa. Ez dakit oso ondo zein kate osatzen lagunduko duten katebegi horiek baina izenburua ponpoxoa da, propaganda ofizialean esango luketen bezala, oso bat dator egitasmoaren helburuekin. Kontua da, aurtan Donostian egiten den oro kultura arloan oso bat datorrela helburu horiekin, eta ez baletor ere etorraraziko litzaioke. Baina ez dut hiriburuaz idatziko, ETBz baizik. Zeren gezurra badirudi ere, ETBk existitzen du oraindik ere.

Mezu bat jaso dut *Beti eskamak kentzen* telesail berria iragarritz. Polita, dotorea eta ongi eginga. Espero dut, benetan, ongi joatea, nahiz eta horrek ez duen inolako bermerik suposatzen. Hor dugu adibide gisa *Aitaren etxea*. Ondo eginga zegoen baina ez du jarraipenik izan. Eta horrela zenbat eta zenbat, azken urteetan. Gure kate publikoaren jarrera Espainiako generalisten berbera da: audientziek agintzen dute. Aldez aurretik eskatzen duten audientziarik ez bada ematen, *hor konpon Marianton!* Zeren arabera eskatzen dute *ratinga* ordea? Esango nuke gertuago dabilela



Eneko Olasagasti

ZINEGILEA

@EnekoOlasagasti


EITBko Administrazio Kontseiluan zertaz eztabaidatzen dute, langileen kanporatzeaz gain?

desiotik errealitatetik baino. Errealitateak hutsetik gertuago kokatzen baikaitu desioek markatzen duten zenbakitik baino. Seguruena, *Beti eskamak kentzenek* "huts" eginez gero, ETBn ari dira jada ordezkia prestatzen. Eta horrela bat, eta beste bat, eta... Noiz arte?

Ez dut ETBk beharko lituzkeen helburuen gaineko eztabaida berriro aipatu nahi. Telebista publiko baten betebeh-


rraren gaineko gaia gutxitan azaltzen da euskarazko hedabidetan. Uste dut ez zaiola inori interesatzen. Badirudi onartu dugula ETBrenak ez duela konponbiderik, gureganatuta daukagula ezer egin ezinarena, patu kontua balitz bezala, konponezina den zerbait. Nire buruari galdetzen diot, zer egiten ote duten EAJ ez diren beste alderdiek EITBko Administrazio Kontseiluan? Zer eztabaidatzen dute haien bileratan, langileen kanporatzeaz gain?

Urte mordoia pasa da telebista publikoaren egitura asmatu zenetik. Trantsizioa bera Espainian zalantzan jartzen denean ezin al dugu guk geure telebista eredia zalantzan jarri eta beste modu batean egin daitekeela pentsatu? Ni baiezkoan nago. Lau kate behar al ditugu, hainbeste langile, egoitza erraldoia? Zertan xahutzen da aurrekontua? Edukietan ala egitura mantentze hutsean? Galdera zerrenda luzea dateke. Baina berdin dio, ETB bertan goxo dago, ezkutuan balego bezala, tarteka polemika deserosorik sortuko ez balitz bezala. *Barrura begiratzeko leihoak* emititzearen inguruan sortu zena bezala. Orduan, Lehendakaria bera atera zen plazara ezinezko aitzakiak emanez. Erantzukizunaren gaineko desproporzioa ikaragarria dela onartuko didazue behintzat. ■



Bilbon euskaraz

www.bilbaoeuskaraz.eus



**KÜSI
ETA
KASI**

www.ikusietaikasi.net



harrapa zank 2016

www.harrapazank.com